



ONDARROAKO UDALA

Ingurumen batzordeko akta

Noiz: 2012ko ekainak 1

Ordua: 18:00

Non: Ondarroako udaletxeko 2. solairua

Agertutakoak: Mari Tere Kaltzakorta, Ibai Muñiz, Garazi Ezkurza, Fernando Salegi, Joseba Zabaleta

1 – Aurreko akta onartzen da

2 – URAREN HILABETEAREN BALORAZIOA

- Irteera uraren ibilbidea ezagutzera
 - Interesgarria izan zen leku horiek ezagutzea, baina arazoak ere egon ziren:
 - Gazte bat bizikletatik jausi zen
 - Azalpen oso teknikoak eman zizkiguten
 - 4 motor eta 3 automobil eroan genituen geurekin
 - Bilbora joan behar izan ginen, baimenen bila eta
 - Hurrengorako autobusa atera dezakegu, eta horrela uraren ibilbide osoa ezagutu: Larruskain, Artibai, Gorozika, Galtzuaran...
- Erreka garbitzea
 - 20 pertsona batu ginen. 10 gaztelekutik, 4 ur kirol elkartetik, 5 udaletik eta 1 ikastolatik
 - Gustora egin genuen lan eta motza egin zitzaigun
 - 15 boltsa atera genituen, fabriketako plastikoekin, etxeetatik botatako zabor boltsekin, obretako hondakinekin... kamioi gurrpil bat ere atera genuen. 600 kilotik gora zabor.
 - Udan horrelako beste ekintza bat egitea proposatu zuten kirol elkartekoek, Alleri inguruan, piraguekin, arboletako zikinak eta garbitzeko
- Kaiet Bengoetxeak egindako komikiak banatu dira, ikastetxeetan eta udal eraikinetan (liburutegia, gaztelekua...)
- Irudi berdinekin erakusketak ipini ziren erakusketa aretoan eta gaztelekuan. Erakusketa aretoan kristaletan ipini zen, horrela egun osoan jendeak ikusteko moduan egon ziren. Baina kotxeak aparkatzen zituzten aurrean.
- Eguzkik egiten zituen erreka jaitsierak oso jendetsuak izaten zirela aipatu da, hurrengo batean egiteko



ONDARROAKO UDALA

3 – UDAL FOROA

- Ondo atera zen. Ikastetxeetako ordezkariak kontsumo arduratsuaren inguruan landu dutena azaldu zieten udal ordezkariari, eta euren konpromisoak ere azaldu zituzten. Udalari neurriak hartzeko ere eksatu zioten.

4 – BIZIKLETA APARKALEKUAK

- Auzo batzarretan eta batzordean atera diren proposamenak ikusita, hurrengo asteetan leku hauetan aparkalekuak ipintzea ondo ikusi da: Anbulatorio parean, Alamedan, Udaletxean, Hondartzan, Zubi Zaharraren eta kukañaren artean
- Irailean Txomin Agirre ikastola ondoan eta Zubi Zahar ikastola inguruan ere ipini daitezke, baina aurretik hauei galdetu ea ikastetxe barruan badauzkaten.
- Aldaketa hauek ere egingo dira:
 - Arraun taldeko aparkaleku bat Iparkaleko igogailuaren eraikineran eroan, eta bertan kartel bat ipini itxita egoten den ordutegiarekin.
 - Liburutegi aurreko aparkalekua mugitu, kotxeak aurrean ez aparkatzeko
 - Zaldupe ikastetxeko atzeko sarreran dauden bi aparkalekuek bat polikiroldegiko parkera eroatea, hango aparkalekuak gainezka egoten direlako arratsaldean, eta goizez bizikletak hobeto zainduta egongo direlako ikastetxetik.
- Auzo batzarretan edota batzordean proposamen gehiago atera ahala, gehiago ipintzen joango gara

5 – UDARAKO LANAK

- Argi apaingarriari tenporizadoreak ipintzeko aukerak aztertuko ditugu
 - Antiu bideko argiei tenporizadoreak ipintzea proposatu da. Bertako bizilagunarekin berba egin beharko litzateke.
- Datorren urteko eskola agenda 21eko koordinatzailearekin batuko gara
 - Aurten Eusko Jaurlaritzak dirulaguntza kendu du. Hala ere, gordeta daukagun diruarekin, udaletik gastu horri aurre egiteko moduan gaude.
- Hondartzaren jarraipena egin: uraren kalitatea, berziklapena tabernan...
- Udal eraikinetan berziklapena zabaltzen jarraitu

6 – UDARAKO FUNTZIONAMENDUA

- Alleriko berreskurapena martxan ipintzeko, Kosta Zuzendaritzaren baimena behar dugu. Baimen hori eskatzea lehenengo batzordetik pasatu behar dugu, gero plenora joateko. Ekainaren erdialdera batzordea deituko dugu puntu bakar hau onartzeko, eta tramitea martxan ipintzeko.



ONDARROAKO UDALA

- Behin batzorde hau egin eta gero, uztailean eta abuztuan ez dugu batzorderik deituko, eta email bidez komunikatuko gara.

7 – BESTERIK

- Ekolapikokoak prest daude hitzaldi bat emateko, eskoletan produktu ekologikoak kontsumitzeari buruz. Irailerako lagatzea pentsatu da, orain gurasoei deialdia egiteko berandu delakoan. Ekozain talde Markinarra gai hau lantzen ibili zen, beraz eurak ere gonbidatuko ditugu hitzaldira.
- Hondartzan futbola ez den beste kirol batzuk bultzatu behar direla komentatu da. Kirol batzordekoak ba ei dabilta horretan. Bi poste eta 8 metroko soka ipintzea proposatu da, ekilibrioa mantenduz alde batetik bestera pasatzen ibiltzeko. Komentatuko zaie kirol batzordekoei. Jaietarako ere jolas hau egin nahian dabilta.
- Kontsumo taldeko lokalerako armairu eta mahaiak Zeledonio eraikinetik hartu eta berrerabiliko ditugu.
- Zeledonioko plaka fotoboltaikoak polikiroldegira eroan dira. Eskola horretan argia altan emanda dagoen galdetu da. Argituko da.
- Zaldupe ikastetxeko plakak zer sortzen duen kontabilizatzeko sistema ez dabil. Era berean, ikastetxean termoak daude, baina ez daude martxan.
- Alleriko pasealekuan erreka ondoan dauden arbolak untzuorritz beteta daude eta arbolak jaten ari dira. Auzolanean inguru hori garbitzea komeni da, nahiz eta leku ez oso irisgarria izan.